



TXOSTEN METEOROLOGIKOA –2020KO APIRILA

Apirila lehorra eta ohikoaren artekoa izan zen, eta tenperaturari dagokionez, erabat beroa. Muturreko egoerei dagokionez lasaia. Bidali ziren abisu gehienak prezipitazio handiagatik bidali ziren apirileko bigarren hamabostaldian. Denboraldi beroan gertatu ohi diren ekaitzak izan ziren, bereziki prezipitazioak izan zuen intentsitatea kontuan hartzen badugu. Estazio batzuetan jasotako kantitateak XXI. mendeko serietako balio altuenak dira apirilean, bai hamar minutuan jasotako prezipitazioari bai ordubetan jasotako prezipitazioari dagokionez. Urteko errekorra ere hautsi zen kasu batzuetan, adibidez Altuben eta Amundarainen.

Prezipitazioa

Pilatutako prezipitazioa kontuan hartuta, apirila lehorra (bereziki Bizkaian) eta ohikoaren (batez ere Araba hegoaldean) artekoa izan zen, baina leku guztietan batezbestekoa baino balio baxuagoekin. Zaparra handien hainbat gertaera izan zirenez, prezipitazioaren distribuzio espaziala ez zen ohikoa izan. Horrela, prezipitazio gehien pilatu zen estazioak Gipuzkoa ipar-ekialdekoak izan ziren, 150 mm inguru (Eskas 178 mm, Berastegi 152.4 mm, Ameraun 149.9 mm, Añarbe 148.6 mm). Gero, 100 mm-tik gorako bigarren mailako beste hainbat maximo daude han-hemenka sakabanatuak (San Prudentzio 140.2 mm, Amundarain 128.7 mm, Altube 121.8 mm, Kapildui 113.7 mm, Sarria 104.1 mm). Prezipitazioaren kantitatea asko jaisten da Bizkaiko kostaldean, izan ere, han egin zuen euri gutxien (Matxitxako 27.2 mm, Mungia 39.8 mm, Sangroniz 46.3 mm, Berriatua 49.2 mm).

Euri egunak 10-13 artekoak izan ziren; kostaldean ohiko balioa baino zertxobait gutxiago eta Araba hegoaldean zertxobait gehiago. Hilabete osoan sakabanatu ziren, baina apirilaren bigarren hamabostaldian gertaerak garrantzitsuagoak izan ziren. Atentzioa gehien ematen duena prezipitazioaren intentsitatea da, apirilean izan zirela kontuan hartuz.. Hilaren 11an, Oizen, XXI. mendeko errekorra hautsi zen apirilerako, bai hamar minutuko prezipitazioari bai ordubetekoari dagokionez. Ondorengo egunetan ere errekorrak hautsi ziren: 16tik 18ra bitartean eta 24tik 28ra bitartean (ikus "Muturreko balioak" atala). Kasu batzuetan, apirileko errekorra ez ezik, urtekoa ere hautsi zen. Gainera, hilaren 18tik aurrera 4 egunetan izan zen prezipitazioa oso ugaria.

Hilaren 18an, eguerditik aurrera ekaitz-gune konbektibo batzuk sartu ziren hegomendebaldetik eta beste batzuk EAEn bertan sortu ziren; zaparrada handiak bota zituen Araba erdialdetik Gipuzkoa ekialdera doan zerrenda batean (Ameraun 24.6 mm/h, Berastegi 19.3 mm/h, Añarbe 16.2 mm/h, Zaldiaran 13.9 mm/h), eta zenbait lekutan pilatutako prezipitazioa oso ugaria izan zen (Ameraun 42.2 mm, Berastegi 41.5 mm).



Hilaren 21 bereziki euritsua izan zen EA Eren ekialdean. Gipuzkoa ipar-ekialdean pilatutako prezipitazioa oso ugaria izan zen (Eskas 50 mm, Ereñozu 41.9 mm, Lasarte 40.9 mm, Berastegi 37.6 mm).

Ondoren, hilaren 24tik 26ra bitartean, apirileko zaparrada handienak bota zituen. Lehengo egunean, EA Eko mendi inguruetan bertan sortu ziren ekaitz-gune konbektiboak, eta gauean zaparrada handiak eta oso handiak bota zituen Goerrin, Tolosaldean eta Gorbeia inguruan (Amundarain 44 mm/h, Agauntza 31.3 mm/h, Ordizia 23 mm/h, Belauntza 20.2 mm/h, Sarria 20 mm/h, Matxinbenta 18 mm/h, Araxes 16.8 mm/h, Alegia 16.1 mm/h). Amundaraingo datuak, bere serieko, orduko prezipitazio maximoaren errekorra gainditu zuen. Estazio horretan eta Agauntzan 46 mm eta 33.6 mm pilatu ziren, hurrenez hurren.

Hilaren 25ean trumoi-ekaitzek Mediterraneo isurialdean izan zuten bereziki eragina. Gasteiz inguruko mendiak izan ziren kaltetuenak eta prezipitazioaren intentsitatea handia izan zen (Zaldiaran 21.5 mm/h, Trebiño 18.6 mm/h).

Hilaren 26an leku gehiagotan egin zuen euria. Zaparrada trumoitsuak Burgos iparraldetik sartu ziren eta EAE zeharkatu zuten; prezipitazioaren intentsitatea handia eta oso handia izan zen, batez ere Gorbeia inguruan eta Arabako mendialdean (Altube 51.3 mm/h, Navarrete 21.1 mm/h, Gorbea 19.8 mm/h, Sarria 19.6 mm/h, Tobillas 18.5 mm/h, Otxandio 16 mm/h). Gehien nabarmentzen den datua Altubekoa da, bere serie osoko baliorik handiena.

Taula 1: Azken urteetan apirilean pilatutako prezipitazioa, Euskal Autonomi Erkidegoko sare automatikoaren estazio adierazgarrietan.

	2020	2019	2018	2017	2016	2015	2014	2013	2012	2011
Deusto	51.5	60.6	107.7	60.0	55.9	61.7	41.2	138.7	182.4	33.6
Lasarte	106.7	115.7	225.5	79.5	75.3	100.5	80.0	158.3	229.7	54.3
Arrasate	81.2	89.1	188.8	76.1	122.4	58.5	54.7	190.9	211.1	68.0
Abetxuko	51.8	78.2	123.6	17.7	49.6	39.2	36.5	74.0	102.6	62.4
Párganos	54.0	66.6	96.1	11.6	33.8	14.3	32.2	43.7	61.9	48.5

Temperatura

Apirileko batez besteko temperatura erabat beroa izan zen. Kostaldean batez besteko temperatura 15 °C ingurukoa izan zen eta Arabako Lautadan 12 °C-ak gainditu zituen; 1980-2010 denboraldi normalaren batezbestekoa baino 2.8 °C beroagoa. Balio horiek ez dituzte gainditu seriko errekorak, izan ere 1945ekoa eta 2011koa are beroagoak izan ziren.

Egun-hotzak oso puntualak izan ziren, batez ere apirilaren hasieran eta amaieran izan genituen.

Izotz-egunak ohiko balioetara hurbildu ziren, izan ere urte sasoi honetan ez dira asko izaten. Konkretuki 3an eta 4an egin zuen izotza. Izotz txikia egin zuen, baina



Mediterraneo isurialdeko leku askotan (Pagoeta -3.1 °C, Etura -2.4 °C, Trebiño -2.3 °C, Subijana -2.2 °C, hilaren 4an), aldiz kantauri isurialdean leku gutxiagotan egin zuen (Berastegi -0.6 °C, Amundarain -0.5 °C, Muxika -0.3 °C, Arrasate -0.2 °C, hilaren 4an). Bestalde, hilaren 4a izan zen tenperatura minimoak kostaldean 10 °C-tik behera jaitsi ziren azken eguna.

Kantauri isurialdean tenperatura maximo absolutuak hilaren 9an neurtu ziren; Kantauriko bailaretan neurtu ziren, batez ere Bizkaian eta ekialdeko kostaldean (Sodupe 28.9 °C, Elorrio 27.9 °C, Galdakao 27.7 °C, Oiartzun 27.7 °C, Ibai Eder 27.1 °C, Behobia 26.8 °C). Mediterraneo isurialdeko maximo absolutuak 25ean neurtu ziren, Moredan (Arabako Errioxa) neurtu zen EAEko tenperaturarik altuena egun horretan (Moreda 24.2 °C, Abetxuko 23.2 °C, Saratxo 22.7 °C).

Nahiz eta hilabete erabat beroa izan, intsolazioa baxua izan zen, apirilean espero zitekeena baino dezente baxuagoa. Eguzki orduen kopurua espero zitekeena baino %20 txikiagoa izan zen, Araba erdialdean izan ezik non portzentajea %5 txikiagoa besterik ez zen izan.

Taula 2: Apirilean, azken urteetan, neurtutako batez besteko tenperatura Euskal Autonomi Erkidegoko sare automatikoaren estazio adierazgarrietan.

	2020	2019	2018	2017	2016	2015	2014	2013	2012	2011
Deusto	15.0	13.5	14.4	12.7	13.4	15.5	14.6	13.0	11.7	16.6
Lasarte	14.9	12.1	14.3	12.1	12.1	14.2	13.6	12.2	10.8	15.8
Arrasate	13.2	10.7	12.6	11.2	10.0	12.8	12.6	10.2	8.7	13.9
Abetxuko	12.2	9.9	11.4	10.5	9.2	12.1	12.5	9.9	8.4	12.9
Párganos	11.9	10.4	11.3	12.1	9.6	12.5	13.2	10.3	8.9	13.8

Haizea

Lehen hamabostaldian Europa iparraldean eta erdialdean presio altuak nagusitu ziren eta Kantauri ekialdean eki-osagaiko haizea nagusitu zen. Ebro ondoko eskualdean, Arabako Mendietan eta Arabako Lautadaren ekialdean ia egunero eki/hego-ekialdeko haizea ibili zen, aldiz kantauri isurialdean hego/hego-ekialdekoa nagusitu zen, tarteka iparraldeko haizearekin. Egun haietan haize-bolada indartsuak izan genituen, ia egunero haize-bolada gogorak eta nahikoa sarri oso gogorak. Egunik haizetsuena 15a izan zen, orduan hego-ekialdeko haize-boladek 100 km/h-ko abiadura gainditu zuten haizeguneetan (Oiz 106.6 km/h, Orduña 100.6 km/h) eta 80 km/h-koa haizeguneak ez diren tokietan (Gasteiz 88.9 km/h, Ilarduia 87.5 km/h, Arkauti 86.4 km/h).

Hilaren 16an eta 17an ere hego-ekialdeko haizea ibili zen, nahiko bizi, baina hilaren 18tik aurrera antizikloia iparraldera mugitu zen eta presioa jaitsi egin zen. Europa hego-mendebaldera depresio txiki batzuk iritxi ziren eta goi-geruzan depresio batzuk askatu ziren. Orduan ipar-mendebaldeko haizea nagusitu zen, nahiz eta denbora tarte luzeetan aldakor ibili; izan ere egoera sinoptikoa ez zegoen ongi definituta. Egun haietan haizeak indarra galdu zuen, baina hala ere



haize-bolada gogorak neurtu ziren, bereziki kantauri isurialdeko haizeguneetan. Hilaren 23an ipar-ekialdeko haizea nagusitu zen eta egun horretan haize-bolada gogorrik ez zen neurtu (33.5 km/h Punta Galean).

Hilaren 25ean eta 26an trumoi-ekaitzen lerroei loturiko haize-bolada gogorak neurtu ziren, baina trantsizio egunak izan ziren. Apirileko azken egunetan zirkulazioa zonala izatera pasa zen. Britainiar uharteetan depresioak kokatu ziren eta gurean mendebaldeko haizea nagusitu zen. Goizetan hego-mendebaldeko haizea ibili zen, indar handiarekin, eta haize-bolada oso gogorak neurtu ziren. Arratsaldetan mendebaldeko haizea ibili zen eta kantauri isurialdean ipar-mendebaldekoa nagusitu zen.

Analisisa

Apirilaren 1etik 2ra

Apirila giro nahasiarekin hasi genuen. 500 hPa-eko mailan blokeo egoera bat genuen: Atlantikoan gailur bat zegoen eta hilaren 1ean depresio bat Galizian kokatu zen. Lurrazalean egoera ia berdina zen: Ipar Atlantikoan 1042 hPa-eko antizikloia zegoen eta Iberiar penintsularen mendebaldean 1007 hPa-eko depresioa, eta depresioari loturiko fronteak. Fronte bero batek EAEn hegoaldean eragin zuen eta Araba hego/hego-ekialdean prezipitazioa oparatu izan zen; Navarretako estazioan 25 mm jaso ziren. Alabaina, ipar isurialdean hego-ekialdeko haizea nagusitu zen eta temperatura balio suabeetan egoteaz gain ia ez zuen euririk egin. Hilaren 2an zerua hodeitsu egon zen, baina prezipitazioa urria izan zen.

Apirilaren 3tik 5era

Hilaren 3tik aurrera 500 hPa-eko mailan zegoen blokeo egoera hautsi egin zen, depresioa betetzen joan zen eta ekialdera mugitu zen. Mendebaldetik gailur txiki bat sartu zen eta lurrazalean Brest-en erdigunea zuen antizikloi bat sortu zen, Frantzia iparraldean, 1021 hPa-ekoa. Egoera hura, berriro ere, blokeo egoera baterantz bilakatu zen; Europa erdialdean omega itxurako blokeoa sortu zen. Antizikloiaren erdigunean presioa 1034 hPa-era iritsi zen Polonia mendebaldean. Horrela, giro eguzkitsua izan genuen eta temperatura igo egin zen, batez ere hilaren 4an eta 5ean, 2.kuadranteko haizea nagusitu zelako. Hala ere, egunsentiko lehen orduak hotzak izan ziren, eta hilaren 3an eta 4an izotza egin zuen barnealdean.

Apirilaren 6an

Europa erdialdean zeuden presio altuak ekialdera mugitu ziren eta gurean beraien eragina txikiagoa izan zen. Horrek Atlantikoko fronte batzuei bidea ireki zitzaion. Fronte horietako batek, ez oso aktiboa, EAE zeharkatu zuen eta eguraldia nabarmen aldatu zen. Zerua estalita egon zen eta euria egin zuen egun osoan, 17 mm pilatu ziren.



Apirilaren 7tik 12ra

Apirilaren 7tik aurrera ia Europa erdialde osoa presio altuen eraginpean egon zen; hainbat erdigune zituen antizikloi zabala, 1037 hPa-eko balioa izatera iritsi zen. Alabaina, Iberiar penintsula egoera horretatik kanpo geratu zen, aintzira barometriko batean, eta goi-geruzetan ezegonkortasun pixka batekin. Udaberriko giroa izan genuen, goizetan hodei gutxi eta arratsaldetan bero-hodeiak, eta zenbait egunetan zaparrada batzuk bota zituen han-hemenka. Azpimarragarria hilaren 11n Cerrojan jaso ziren 20 mm-ak. Temperatura 25 °C-tik gora igo zen kantauri isurialdean, eta hilaren 9an 30 °C-ra hurbildu ginen hego/hego-ekialdeko haizearen eta intsolazioaren eraginez, izan ere urte sasoi horretan intsolazioa altua izan ohi da.

Apirilaren 13tik 17ra

Atlantiko iparraldetik ibar bat askatu zen 500 hPa-eko mailan eta zirkulazio orokorretik isolatuta geratu zen; goi-geruzetan askatutako depresioa Portugal parean kokatu zen. Bitartean, Europa iparraldean blokeoak jarraitzen zuen, Omega itxurakoak; lurrazalean antizikloia genuen, erdigunea (1030 hPa-ekoa hilaren 14an) Britainiar uharteetan zuena. Hurrengo egunetan antizikloia Europa erdialdera mugitu zen. Denboraldi hartan eguraldiak hobera egin zuen, baina ez zen erabat egonkortu eta arratsaldetan zaparrada bat edo beste bota zuen. Ostarte zabalak izan genituen, bereziki goizetan eta eguerdi inguruan.

Apirilaren 17tik 19ra

Europa iparraldean Omega itxurako blokeoarekin jarraitzen zuten bitartean, eguraldi oso egonkorrarekin eremu horretan, Atlantikoan zegoen goi-geruzako depresio askatua betetzen joan zen eta Iberiar penintsula hurbildu zen. Ezegonkortasuna handitu egin zen eta zaparrada handiak bota zituen hilaren 18an ekialdean. Ameraunen ordubeteen 24.6 mm jaso ziren.

Apirilaren 20tik 23ra

Europa iparraldean zegoen blokeoak depresioei bidea oztopatzen zien latitude horietan eta, horren ondorioz, gailurraren mendebaldeko muturrean beste ibar bat askatu zen zirkulazio orokorretik; horrela aurreko egunetako egoera errepikatu zen. Alabaina, orduan goi-geruzan askatutako depresioak Iberiar penintsularen hegoaldea zeharkatu zuen. Hilaren 21ean presio altuak nagusitu ziren Europa iparraldean eta erdialdean, eta presio baxuak Iberiar penintsularen hego-ekialdean, depresioari loturiko hainbat fronterekin. Ekialdeko fluxuaren eraginez Katalunian euria erruz egin zuen. EAera ipar-ekialdetik fronte okluitu bat iritsi zen eta ekialdean euria oso ugaria izan zen; 24 orduan 50 mm pilatu ziren Eskasen eta 42 mm Ereñozun. Hilaren 22an ere egoera antzekoa izan zen, nahiz eta euria urriagoa izan. Hilaren 23an ezegonkortasuna txikiagoa izan zen.



Apirilaren 24tik 27ra

Egun haietan goizetan giro lasaia izan zen eta arratsaldetan trumoi-ekaitzak. Hilaren 24an eta 26an zaparrada oso handiak bota zituen. Sinoptikoki presio-gradientea oso txikia zen, lurrazalean aintzira barometrikoa zegoen. 500 hPa-eko mailan, ordea, aska txiki bat inguratu zitzaigun mendebaldetik eta ezegonkortasuna ekarri zuen.

Apirilaren 28tik 30era

Hilaren 28an aska desagertzen joan zen. Depresio bat Britainiar uharteetara hurbildu zen eta presio altuak hegoalderago dauden latitudeetan geratu ziren, beraz EAEn zirkulazio zonala gailendu zen. Horrela, mendebaldeko haizea ibili zen eta Atlantikoko depresioei loturiko frente batzuk eragin ziguten.






Oinarrizko datu estatistikoak

Taula 3: 2020ko apirileko balio klimatikoak, Euskal Autonomi Erkidegoko sare automatikoaren estazio adierazgarrietan.

Estazioa	Batez besteko Temp. °C	Temp. max. °C	Temp. max.abs. °C	Temp. min °C	Temp. min.abs. °C	Izotz- egunak	Pilatutako euria l/m ²	Egun batean pilatutako euri max l/m ²	Euri- egunak
Deusto	15.0	19.1	26.9	11.7	5.4	0	51.5	10.1	13
Lasarte	14.9	19.2	26.1	11.0	3.9	0	106.7	40.9	12
Arrasate	13.2	19.4	26.6	8.8	-0.2	1	81.2	18.1	12
Abetxuko	12.2	18.2	23.2	7.2	-1.7	2	51.8	13.0	10
Páganos	11.9	16.0	22.0	8.4	0.4	0	54.0	13.7	10



Eguneko temperatura eta prezipitazioaren grafikoak



Pilatutako prezipitazioa

 Temperatura minimoa


 Batez besteko temperatura

 Temperatura maximoa




Prezิปitazioaren jokaera


Behatutako prezipitazioa
Precipitación observada




Prezิปitazio normala
Precipitación normala



Prezิปitazio normalarekiko desbideratzea
Desviación respecto a la precipitación normal



Prezิปitazio normalarekiko portzentaia
Porcentaje respecto a la precipitación normal





Muturreko balioak

Apirilean hamar minutuan pilatutako prezipitazio balio handiena

Estazioa	Data	Errekorra (mm/10 min) 2020ko apirila	Data	Aurreko errekorra (mm/10 min) XXI mendea apirila	Estazioa jarri zen urtea
Oiz	11/04/2020	5.5	18/04/2015	4.7	1991
Mañaria	16/04/2020	6	27/04/2007	4.9	2003
Zizurkil	17/04/2020	6.8	10/04/2009	3.7	2000
Andoain	17/04/2020	7.8	26/04/2015	4.9	1995
San Prudentzio	17/04/2020	7.9	18/04/2015	6.3	1995
Ereñozu	17/04/2020	7.2	14/04/2004	7.0	1992
Berastegi	18/04/2020	10.9	18/04/2015	6.5	2000
Ameraun	18/04/2020	13.5	18/04/2015	5.9	1992
Alegría	18/04/2020	5	30/04/2007	4.2	1993
Añarbe	18/04/2020	9.8	22/04/2006	5.6	1999
Urkulu	18/04/2020	7.8	24/04/2011	6.1	1998
Galdakao	24/04/2020	6	13/04/2018	5.0	2017
Arrasate	24/04/2020	5.9	07/04/2007	5.0	1998
Ordizia	24/04/2020	10	24/04/2011	5.7	1992
Sarria	24/04/2020	9.1	22/04/2016	6.1	2011
Amundarain	24/04/2020	17.6	30/04/2007	7.8	2001
Agauntza	24/04/2020	16.2	30/04/2007	6.1	1996
Araxes	24/04/2020	5.7	24/04/2011	4.2	2011
Trebiño	25/04/2020	10.3	30/04/2011	6.0	2007
Subijana	25/04/2020	6.2	03/04/2013	5.9	1992
Zaldiaran	25/04/2020	7.9	21/04/2012	6.2	1994
Tobillas	26/04/2020	4.8	13/04/2018	4.5	2017
Altube	26/04/2020	13	22/04/2016	6.2	1999
Navarrete	26/04/2020	10.3	19/04/2008	5.9	1992
Otxandio	27/04/2020	6.7	21/04/2006	5.8	1992
Eskas	28/04/2020	5.3	11/04/2018	4.0	2017

Urtean hamar minutuan pilatutako prezipitazio balio handiena

Estazioa	Data	Errekorra (mm/10 min)	Data	Aurreko errekorra (mm/10 min) XXI mendea apirila	Estazioa jarri zen urtea
Galdakao	24/04/2020	6	04/06/2018	5.6	2017

**Apirilean ordubetean pilatutako prezipitazio balio handiena**

Estazioa	Data	Errekorra (mm/h) 2020ko apirila	Data	Aurreko errekorra XXI mendea apirila (mm/h)	Estazioa jarri zen urtea
Oiz	11/04/2020	10.5	07/04/2010	9.7	1991
Berna	16/04/2020	13.1	09/04/2018	10.6	1994
Berastegi	18/04/2020	19.3	24/04/2011	16.2	2000
Ameraun	18/04/2020	24.6	24/04/2011	15.8	1992
Galdakao	24/04/2020	13.2	13/04/2018	12.1	2017
Zizurkil	24/04/2020	12.6	24/04/2011	11.0	2000
Ordizia	24/04/2020	23	24/04/2011	17.2	1992
Sarria	24/04/2020	20	22/04/2016	11.5	2011
Matxinbenta	24/04/2020	18	30/04/2007	14.4	2002
Amundarain	24/04/2020	44	30/04/2007	14.5	2001
Agautza	24/04/2020	31.3	24/04/2011	15.6	1996
Araxes	24/04/2020	16.8	24/04/2011	14.4	2011
Alegia	24/04/2020	16.1	30/04/2007	14.6	1996
Belauntza	24/04/2020	20.2	24/04/2011	15.2	1998
Trebiño	25/04/2020	18.6	24/04/2011	9.6	2007
Zaldiaran	25/04/2020	21.5	21/04/2012	12.0	1994
Tobillas	26/04/2020	18.5	13/04/2018	8.5	2017
Altube	26/04/2020	51.3	22/04/2016	15.2	1999
Iurreta	26/04/2020	11.3	21/04/2006	9.1	2001
Navarrete	26/04/2020	21.1	13/04/2008	10.5	1992
Otxandio	26/04/2020	16	21/04/2006	10.2	1992
San Prudentzio	26/04/2020	13.3	22/04/2004	9.7	1995
Aixola	27/04/2020	9.9	27/04/2007	9.0	1998

Urtean ordubetean pilatutako prezipitazio balio handiena

Estazioa	Data	Errekorra (mm/h)	Data	Aurreko errekorra XXI mendea (mm/h)	Estazioa jarri zen urtea
Amundarain	24/04/2020	44	14/09/2014	43.6	2001
Tobillas	26/04/2020	18.5	15/07/2018	17.7	2017
Altube	26/04/2020	51.3	20/07/2013	32.0	1999



Muturreko egoerak

Apirilean 8 abisu hori igorri ziren: 5 prezipitazio handiengatik, 1 haizeagatik haizeguneetan eta 2 izotzagatik.

- Hilaren 3an presio altuen erdigunea Bizkaiko golkoan kokatu zen eta Kantauri ekialdean aire masa hotza sartu zen. Hilaren 3an eta 4an presio altuen erdigunea Europa erdialdera mugitu zen; aire masa hotza aldendu egin zen eta hilaren 4an aire beroa sartu zen Kantaurira. Hilaren 3an EAEn hodeiak gutxitu egin ziren eta goizean goiz oskarbi geratu zen, Gipuzkoa ekialdean izan ezik. Hilaren 3an azken ordutan zerua hodei gutxirekin edo oskarbi geratu zen eta hilaren 4ko lehen ordutan ere bai. Hilaren 3an izotz txikia egin zuen ia Mediterraneo isurialde osoan eta kantauri isurialdeko zenbait lekutan ere bai (Otxandio, -1.4 °C; Urkiola, -0.6 °C). Hilaren 4an apur bat gehiago hoztu zuen eta kantauri isurialdeko leku gehiagotan egin zuen izotza (Berastegi, -0.6 °C; Amundarain, -0.5 °C; Muxika, -0.3 °C). Hilaren 5ean lainotu egin zuen, izan ere depresio bat sartu zen Atlantikotik. Haizeak hegoaldera egin zuen eta egun horretan tenperatura minimoak nabarmen igo ziren; ez zuen izotzik egin.

Estazioa	Temperatura minimoa, hilaren 3an (° C)
Antoñana	-2
Salvatierra	-2
Pagoeta	-2
Sarria	-1.8
Altube	-1.7
Etura	-1.7
Trebiño	-1.5
Abetxuko	-1.3

Estazioa	Temperatura minimoa, hilaren 4an (° C)
Pagoeta	-3.1
Etura	-2.4
Trebiño	-2.3
Antoñana	-2.2
Subijana	-2.2
Kanpezu	-2.1
Ozaeta	-2.1
Abetxuko	-1.7

Ostirala, hilak 3: Abisu horia tenperatura minimoak/izotzagatik Araban 00etatik 10etara (ordu lokala.

Larunbata, hilak 4: Abisu horia tenperatura minimoak/izotzagatik Araban 00etatik 10etara (ordu lokala.



- Hilaren 4an presio altuak Europa ekialdera mugitu ziren eta depresio sakon bat Britainiar uharteen hego-mendebaldean kokatu zen; depresioa Bizkaiko golkoraino luzatu zen. Hego-osagaiko haizea nagusitu zen eta Kantaurin nabarmen zakartu zen, bolada oso gogor batzuekin egunaren bigarren partean eta hilaren 5eko lehen orduetan. Hilaren 5eko lehen orduetan 105.8 km/h-ko bolada neurtu zen Matxitxakon, eta kantauri isurialdeko haizeguneetan 90-95 km/h inguruko haize-boladak izan ziren, batez ere mendebaldean. Arratsalde-gauean haizeak indarra galdu zuen.

Igandea, hilak 5: Abisu Horia haizeagatik haizeguneetan Gipuzkoan eta Araban 00etatik 09etara (ordu lokala).

- Hilaren 15ean antizikloi bat kokatu zen Europa erdialdean eta depresio bat Iberiar penintsularen hego-mendebaldean. Eki/ipar-ekialdeko haizea zakar ibili zen, bereziki goizean. Azpimarragarriak izan ziren Arabako Mendietan eta Arabako Lautadaren ekialdean neurtu ziren haize-boladak, baita hiriburukoak ere. Arratsalde-gauean depresioa betetzen joan zen eta Kantauri ekialdean presioa handitu egin zen; ondorioz, haizeak pixkanaka indarra galdu zuen.

Estazioa	Haize-boladak, hilak 15 (km/h)	Ordua UTC
Oiz	106.6	07:00
Orduña	100.9	09:20
Zaldiaran	100.5	09:00
Ilarduia	92.8	11:30
Gasteiz	88.9	11:20
Arkauti	86.4	11:20
Zizurkil	81.9	20:00
Kanpezu	81.1	12:50

- Hilaren 18an goi-geruzan askatutako depresio bat Bizkaiko golkoan sartu zen eta kantauri osoan ezegonkortasun handia sortu zuen. Lurrazalean ezegonkortasun lerro batek Kantauri zeharkatu zuen arratsaldean, mendebaldetik ekialdera. Goizetik aurrera zaparradak bota zituen; hasieran zaparradak txikiak izan ziren eta han-hemenka sakabanatu ziren, baina eguerditik aurrera zaparrada gero eta handiagoak bota zituen, eta trumoi-ekaitzak izan ziren. Azpimarragarria arratsaldeko lehen orduetan Aralarren sortu zena; gero Oriako ibarrean barrena mugitu zen eta pare bat ordu geroago Bidasoara iritsi zen. Ekaitz-gune hark txingor erauntsia utzi zuen Gipuzkoa ekialdean, bereziki Berastegin. Ondorengo orduetan ere zaparrada batzuk bota zituen, batez ere Araban eta Gipuzkoan. Azken orduetan zaparradak ez ziren trumoitsuak izan eta pixkanaka atertzera egin zuen.



Estazioa	Prezipitazioa hamar minutuan, hilak 18 (mm)	Ordua UTC
Ameraun	13.5	14:10
Berastegi	10.9	14:10
Añarbe	9.8	14:30
Urkulu	7.8	14:50
Amundarain	7	13:30
Agauntza	6.1	13:20
Salvatierra	5.4	14:50
Zaldiaran	5.1	18:50
Alegria	5	17:30

Estazioa	Prezipitazioa ordubetea, hilak 18 (mm)	Ordua UTC
Ameraun	24.6	15:00
Berastegi	19.3	14:50
Añarbe	16.2	15:10

Larunbata, hilak 18: Abisu Horia prezipitazio handiagatik 15etatik 24etara (ordu lokala)

- Hilaren 24tik 27ra Iberiar penintsulan ezegonkortasuna handia izan zen. Bero-depresioak sortu ziren egunero, erdi mailako geruzan eta goi-geruzan zegoen tenperatura diferentziagatik. Hilaren 24ko ekaitzek bereziki Gipuzkoa ekialdean eragin zuten. Hilaren 25ean kantauri isurialdean ia ez zen ekaitzik izan, baina Arabako zenbait lekutan zaparrada trumoitsu handiak bota zituen, batez ere Gasteiz inguruko mendietan. Hilaren 26an berriro euritara jo zuen, eta isurialdeen banalerro inguruan bota zituen zaparrak nabarmentzekoak izan ziren, ez bere intentsitateagatik soilik, baita iraupenagatik ere. Horrela, egun hartan, prezipitazioa handia izateaz gain, pilatutako ur kopurua ere nabarmena izan zen. Adibidez, Altubeko estazioan 24 orduan 60 mm baino gehiago pilatu zen (61.2 mm). Hilaren 27an ezegonkortasuna txikiagoa izan zen, baina hala ere arratsalde-gauean zaparrada trumoitsu batzuk bota zituen, nahiz eta ez ziren handiak izatera iritsi (Otxandio, 10.3 mm/h; Gardea, 10 mm/h).

Estazioa	Prezipitazioa hamar minutuan, hilak 24 (mm)	Ordua UTC
Amundarain	17.6	18:10
Agauntza	16.2	18:00
Ordizia	10	18:00
Sarria	9.1	15:00
Matxinbenta	8.8	17:40
Alegia	7.6	18:20
Arrasate	5.9	16:50
Araxes	5.7	18:50
Belauntza	5.3	18:50



Estazioa	Prezipitazioa ordubetea, hilak 24 (mm)	Ordua UTC
Amundarain	44	18:40
Agauntza	31.3	18:40
Ordizia	23	18:50
Belauntza	20.2	19:10
Sarria	20	15:30
Matxinbenta	18	18:20
Araxes	16.8	19:10
Alegia	16.1	19:10

Estazioa	Prezipitazioa hamar minutuan, hilak 25 (mm)	Ordua UTC
Trebiño	10.3	14:00
Zaldiaran	7.9	14:20
Subijana	6.2	14:20

Estazioa	Prezipitazioa ordubetea, hilak 25 (mm)	Ordua UTC
Zaldiaran	21.5	15:10
Trebiño	18.6	14:30

Estazioa	Prezipitazioa hamar minutuan, hilak 26 (mm)	Ordua UTC
Altube	13	17:10
Navarrete	10.3	15:20
Gorbea	5.9	18:10
Sarria	5.3	16:40

Estazioa	Prezipitazioa ordubetea, hilak 26 (mm)	Ordua UTC
Altube	51.3	17:40
Navarrete	21.1	16:10
Gorbea	19.8	18:50
Sarria	19.6	17:30
Tobillas	18.5	16:50
Otxandio	16	19:00

Ostirala, hilak 24: Abisu Horia prezipitazio handiagatik 15etatik 21etara (ordu lokala)

Larunbata, hilak 25: Abisu Horia prezipitazio handiagatik 15etatik 21etara (ordu lokala)

Igandea, hilak 26: Abisu Horia prezipitazio handiagatik barnealdean 15etatik 21etara (ordu lokala)

Astelehena, hilak 27: Abisu Horia prezipitazio handiagatik 15etatik 21etara (ordu lokala)



Terminologia

Batez besteko tenperatura: hileko batez besteko tenperatura.

- *Tenperatura maximoa:* eguneko tenperatura maximoen hileko batez bestekoa.
- *Tenperatura maximo absolutua:* hileko tenperaturarik altuena.
- *Tenperatura minimoa:* eguneko tenperatura minimoen hileko batez bestekoa.
- *Tenperatura minimo absolutua:* hileko tenperaturarik baxuena.
- *Izotz-egunak:* hilean, tenperatura 0 °C-tik behera egon deneko egun kopurua.
- *Pilatutako prezipitazioa:* hilean pilatutako prezipitazio totala.
- *Eguneko prezipitazio maximoa:* hilean, eguneko prezipitazio total altuena.
- *Prezipitazio-egunak:* hilean, estazioak ≥ 1 mm-ko prezipitazioa neurtzen dueneko egun kopurua.

Temperaturaren maiztasun-indizea (f) . Irizpidea:

- *Erabat beroa:* tenperaturak, 1971-2000ko denboraldiko balio maximoa, gainditzen duenean.
- *Oso beroa:* $f < \%20$. tenperatura, urterik beroenen $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Beroa:* $\%20 \leq f < \%40$.
- *Ohikoa:* $\%40 \leq f < \%60$. tenperatura erdiko balioaren inguruan aurkitzen denean.
- *Hotza:* $\%60 \leq f < \%80$.
- *Oso hotza:* $f \geq \%80$. tenperatura, urterik hotzenen $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Erabat hotza:* tenperatura, 1971-2000ko denboraldiko balio minimora irizten ez denean.

Prezipitazioaren maiztasun-indizea (f) . Irizpidea:

- *Erabat hezea:* prezipitazio-kopurua, 1971-2000ko denboraldiko balio maximoa, gainditzen duenean.
- *Oso hezea* $f < \%20$. prezipitazio-kopurua, urterik hezeenen $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Hezea:* $\%20 \leq f < \%40$.
- *Ohikoa:* $\%40 \leq f < \%60$. prezipitazio-kopurua erdiko balioaren inguruan aurkitzen denean.
- *Lehorra:* $\%60 \leq f < \%80$.
- *Oso lehorra:* $f \geq \%80$. prezipitazio-kopurua, urterik lehorrenen $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Erabat lehorra:* prezipitazio-kopurua, 1971-2000ko denboraldiko balio minimora irizten ez denean.

Testuan erabilitako beste termino meteorologikoen azalpena hurrengo terminologia gidan aurki daiteke:

http://www.euskalmet.euskadi.net/s07-5893/eu/contenidos/informacion/manual_estilo/eu_9900/eu_manual.html.

OHARRA: txosten honetan erabilitako datuak behin-behinekoak dira eta erabat balioztatu gabe daude.